



laburpena

Bertsio osoa, hemen:
www.hegoa.ehu.eus



Memoria honek Hegoak 2017an egindako jarduera akademiko eta sozial nagusiak biltzen ditu.

2017a ez da urte arrunta izan Hegoaren historian. Hain zuzen, hogeita hamar urte bete ditugu 1987an sortu ginenetik; une horretan Garapen Bideko Herrialdeen Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa izena hartu zuen, eta institutu bilakatu zen 1992an. Horri esker, gai horietan espezializatutako Euskal Herriko zentrorik zaharrena gara, eta Espainiako estatuko beteroenetakoa.

2

Ibilbidearen hiru hamarkada horiek ospatzeko, azaroaren 24an Abandoibarran antolatu genuen *Garapena, bakea eta giza eskubideen erronkak. Mundu aldakor baten aurrean alternatibak irudikatzen* izeneko solasaldia. Nazioarteko gaietan adituak diren hiru pertsonaren gogoetak entzun ahal izan genituen: Jenny Pearce, Itziar Ruiz-Giménez eta Mariano Aguirrerena, hain zuzen, eta Paco Etxeberria izan zen moderatzailea. Jardunaldiak zati ludiko bat ere izan zuen, Virginia Imaz pailazoaren eta Harresian Zulo musika-taldearen eskutik. Ospakizun horretarako, plazer handia izan zen 230 pertsonak baino gehiagok parte hartu izana, erakundeen eta UPV/EHUREn agintariek barne, baita unibertsitateko irakasleek eta GKE nahiz gizarte-mugimendu askotako ordezkariak ere. Ekitaldiari esker, presentzia nabarmena izan genuen komunikabideetan, eta hamar bat elkarriketa egin zizkiguten. Horien bidez, jendeari helarazi ahal izan genizkion garapenaren arazoei buruzko gure gogoetak.

Bestalde, Hegoak ohiko jarduerak egiten jarraitu du; horiei dagokienez, bereziki nabarmentzekoa da unibertsitateko irakaskuntza-lana, gure hiru masterren bidez bideratua. Horieta bi *-Globalizazioa eta Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapena-* titulu ofizialak dira, eta eskari handia izaten jarraitzen dute. Hirugarrena *-Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea-*, berriz, berezko online titulua da, eta hirugarren urtez egin zen 2017an. Gainera, *Baserritik mundura: Gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroaren II. edizioa hasi dugu; *Economía Plural, Solidaria y Comunitaria* masterraren I. edizioaren bigarren urtean aritu gara lankidetzan, La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés unibertsitateko Garapenerako Zientzien Graduondokoarekin (CIDES). Halaber, *Garapenerako Politiken Koherentzia* ikastaroaren I. edizioa eman dugu, HAEERen prestakuntzaren barruan. Gainera, eskolak eman ditugu autonomia-erkidego eta herrialde askotako hainbat master eta ikastarotan.



2017an zehar, askotariko jardunaldi, mintegi eta eztabaidak antolatu ditugu, adibidez: *Non-violent civil resistance and peace-building* mintegia (apirilean); *Elikaduraburujabetzarako jakintzen aniztasuna eta prestakuntza-espereintziak* tailerra (apirilean); *Gatazkei, bake-prozesuei eta memoria historikoari buruzko ekoizpen feminista* jardunaldia (maiatzean); edo *Gizarte-inkubagailuak ekonomia sozial eta solidarioan, tokiko giza garapenaren eta emakumeen eskubide ekonomikoaren alde* mintegien zikloa (abenduan).

Gure jardueraren funtsezko arloetako bat da, halaber, ikerketa. Horretarako, ikerketa-taldeak ditugu garapenari buruzko ikerketa-arlo guztietan lanean; txosten honetan bilduta daude horien argitalpen eta jarduerak ere. Aipatzekoa da, gainera, *Garapenari buruzko Ikasketak* doktorego-programa –Hegoak koordinatua eta *Mención hacia la excelencia (Bikaintasunerako Aipua)* aintzatespena jaso duena– sendotzen jarraitu dugula; hain zuzen ere, urtearen amaieran 69 tesi zeuden izena emanda, horietako hamalau 2017ko deialdian.

Garapenerako hezkuntzaren arloan, VSF-Munduko Elikadura Justizia elkartearikiko lankidetzak da nabarmentzekoa, honako hitzarmen honen esparruan: *Elikadura eta Garapen Iraunkorrerako eskubidea genero ikuspegia kontuan harturik gauzatzeko espazioak zabalduz, hezkuntza formalaren esparru guztietan, eta Hariak. Recreando la educación emancipadora* aldizkariaren 2. eta 3. aleak ere argitaratu dugu.

Gure lanaren beste mugarrietako bat da Dokumentazio Zentroa, 20.500 erregistroko datu-basea duena, 6.600 liburu baino gehiagokoa. Azpimarratzekoa da liburutegi digitalak gero eta nazioarteko proiektio handiagoga duela; hain zuzen ere, garapenean eta nazioarteko lankidetzan espezializaturiko gaztelaniazko datu-base nagusietako bat da. Mota askotako erabiltzaileei (ez bakarrik akademikoei, baita GGKEei, gizarte-mugimenduei, erakunde publikoei eta antzekoei ere) ematen zaien balio handiko zerbitzua da, eta UPV/EHUren izena nazioartean zabaltzen laguntzen du.

Argitalpenei dagokienez, emankorra izan da 2017. urtea; izan ere, ekarpen berriak egin dizkiogu gure katalogoari. Dagoeneko, gure historian berrehun ikerketa- eta dibulgazio-lan baino gehiago argitaratu ditugu. Hala, hiru *Lan-Koaderno*

berri eman ditugu argitara, eta erreferentzia-serie horrek jada 74 zenbaki ditu. Gainera, aurten aspaldiko nahi bat abiarazi dugu: *Hegoak Zabalduz* bilduma berriaren lehen bost zenbakiak kaleratu ditugu. Euskaraz dago idatzita, eta, batez ere, unibertsitateko ikasleei bideratuta.

Bestalde, Hegoa Institutuak hainbat erakunderi aholkularitza-zerbitzuak ematen jarraitu du, hala nola Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiei, Eibarko, Irungo eta Ordiziako udalei nahiz Kantabriako Gobernuari.

Horrekin batera, beste herrialde batzuetako unibertsitateekin ditugun harremanak oso garrantzitsuak izan dira gure lana egiteko. Horien artean, nabarmentzekoa da Boliviako CIDES-UMSArekin aritu garela lankidetzan 2015eko programa hau abian jartzeko: *Fortalecimiento de derechos económicos de las mujeres y políticas públicas de economía solidaria en municipios de La Paz*. Era berean, hitzarmen baten bidez, Caliko (Kolonbia) Unibertsitate Jaberriarraren Kulturarteko Ikasketen Institutuarekin dugun harremana sendotu dugu. Harekin batera, GLEAk onartutako proiektu bat egiten hasi gara, herrialde horretako bake-prozesuan laguntzeko asmoz, ekonomia solidarioko ekimenetara bideratutakoa.

Jarduera horiei beste asko gehitu behar zaizkie: Hegoako kideek gure institutuan eta UPV/EHU nahiz beste hainbat esparrutan egindakoak. Zenbait aldizkaritako argitalpen-kontseiluetan ere parte hartzen dugu, baita sare akademiko eta sozial askotan ere. Jarduera horiek asko dira hemen zerrendatzeko, baina beharrezkoak dira gure lanak nahi dugun eragin akademiko, sozial eta politikoa izan dezan.

Karlos Pérez de Armiño
Hegoako zuzendaria

Hegoak hainbat motatako irakaskuntzen bidez gauzatzen du prestakuntza-jarduera eta garapenerako hezkuntzaren arloko jarduera. Alde batetik, *Garapenari buruzko Ikasketak* doktorego programaren bitartez –2011. urtetik aurrera, Hezkuntza Ministerioak emandako *Bikaintasunerako Aipamena* dauka–, eta *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta* eta *Globalizazioa eta Garapena* master ofizialen eta *Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea* online berezko tituluaren bitartez.

Eta, bestetik, Hegoa Institutuko kideok Espainiako, Europako nahiz Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan eskainitako graduondoko ikastaroetan parte hartzen dugu (doktoregoak, masterrak, espezializazioak eta diplomak).

4

La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés (UMSA) unibertsitateko Garapenerako Zientzien Graduondokoarekin (CIDES) batera, Bolivian *Economía Plural Solidaria y Comunitaria* masterraren bigarren urtea babestu dugu. Master horren helburua da sektore publikoko nahiz gizarte erakundeetako profesionalei prestakuntza ematea, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erakustea, ekonomia solidario eta komunitarioko marko kontzeptualak nahiz prozesu sozioekonomiko eta kultural zehatzak ulertzeko eta aztertzeke, betiere ikuspegi kritiko eta propositibotik, ekonomia plurala eta gizarte eta kultura berdintasunik eza bereizgarri dituen testuinguru batean.

2017an, gainera, *Baserritik mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroaren bigarren edizioa hasi zen. Ikastaro hori Etxalde mugimenduaren, EHNE-Bizkaia nekazaritza-sindikatuaren eta Gizarte Mugimenduen eta Kooperazio Kritikoa Ikerketa Taldearen elkarlanetik sortu da,

eta helburu hau du: unibertsitatean Elikadura burujabetzari eta Agroekologiari –proposamen emantzipatzaile gisa ulertuta– buruzko prestakuntzarako eta ikerkuntzarako espazioak gehitzea. Gai horren inguruan, hainbat jarduera antolatu dira, adibidez, *Jakintza-aniztasuna eta prestakuntza-esperientziak elikadura-burujabetzarako* (Elikadura21 nazioarteko hitzaldia, Gasteiz) edo *Nekazaritzaren papera XXI. mendean* (Eskuernaga), eta *Euskal Herriko nekazarien borroken historia: tokiko alternatibak elikadura-sistemari dagokionez, globalizazioak dituen erronken aurrean* (Leitza).

Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan, Hegoak hitzaldi-ziklo hau antolatu du: *Gizarte-inkubagailuak ekonomia sozial eta solidarioan, tokiko giza garapenaren eta emakumeen eskubide ekonomikoen alde* (Donostia, Arrasate, Gasteiz eta Bilbo).

Gatazkekin, bakearekin eta garapenarekin lotuta, hainbat topaketa eta mintegi antolatu dira, adibidez: *Giza segurtasunetik harago? Segurtasunari buruzko azterketa kritikoen erronkak eta ekarpenak; Non-violent civil resistance and peace-building; Gatazkei, bake-prozesuei eta memoria historikoari buruzko ekoizpen feminista; Maskulinitateak eta horiek nazioarteko bakearen eta segurtasunaren arloan duten eragina, eta Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren teoria eta mugimenduak.*

Jarduera horren osagarri, ikastaro, hitzaldi, tailer eta mintegiak antolatzen ditugu, beste unibertsitate, GGKE eta erakunde batzuek hala eskatuta. Esaterako, *Garapenerako Politiken Koherentzia* ikastaroaren lehen edizioa nabarmendu daiteke, IVAPek Bizkaiko Foru Aldundirako eskainitako prestakuntza gisa.

Ikerketa jarduera zenbait talderen eta ikerketa-ildoren bidez lantzen da, eta Hegoa Institutuari atxikitako irakasleek eta ikertzaileek hartzen dute parte, bai eta lan-kontratupeko langileek ere.

Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak. Garapenari buruzko ikasketak eta bakeari eta gatazkei buruzko ikasketak uztartzen lan egiten du, batez ere. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Leire Agirreazkuenaga, Jokin Alberdi, Eduardo Bidaurratzaga, M^a Ángeles Díez, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mercedes Larrañaga, Alba Linares, Irantzu Mendia, Itziar Mujika, Rakel Oion, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Juan Tellería, Unai Villalba, Patxi Zabalo eta iker zirion.

2010. urtetik, lan-ibilbide bateratua izan du, eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Sistemako A kategoriako ikerketa-taldetzat aitortu eta babesten du, erakundearen babesa 2016-2021 aldirako zihurtatuz.

Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa. Erreferentzia normatibo gisa Giza Garapena hartzen du ekonomia sozial eta solidarioaren alorretik eta printzipioetatik. Taldekideak: Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, Efren Areskurrinaga, Edu Bidaurratzaga, M^a Luz de la Cal, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Juankar Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba.

Taldeak jorratutako gaien esparruan, GLEAk finantzatuta, egitasmo hauek ari dira gauzatzen: *Fortalecimiento de derechos económicos de las mujeres y políticas públicas de*

economía solidaria en municipios de La Paz (Bolivia) programa eta *Paz territorial: fortalecimiento de actores locales para la construcción de paz y el desarrollo de modelos económicos alternativos en el norte del Cauca* (Kolonbia) proiektua.

Gatazkak, bakea eta garapena. Giza segurtasunaren, bake eraikuntzaren eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren kontzeptuen analisia. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño, Gloria Guzmán, Alba Linares, Irantzu Mendia, Itziar Mujika eta iker zirion.

Gai horren inguruan, beste proiektu hau dago abian, GLEAk finantzatuta: *Bake kritikoa eraikitzen: marko kontzeptuala eta metodologikoa gatazkarekiko sentikorra den Euskal lankidetzak baterako*. Proiektuak Estatuko zein Portugalgo, Kolonbiako eta Hondurasko zentroetako ikertzaileen laguntza dauka.

Feminismoa eta gatazkak. Giza Eskubideei aplikatutako ikerketa feministaren metodologiari buruzko prestakuntza eta ikerketen sustapena, erakunde feministekin eta giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan. Taldekideak: Irantzu Mendia, Gloria Guzmán, Itziar Mujika eta iker zirion. Laguntzaileak: Amandine Fulchiron, Marina Gallego, Sara Hernández, Nadia López, Marta Luxan, Lidia Ruiz.

Alor horretako ekintzak proiektu hauen barnean kokatu dira: *Egia, justizia eta erreparazioarako eskubidearen aldeko ekintza feminista eta internazionalista indartzea*, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutakoa. Horrez gainera, Mugarik Gabe erakundeari laguntza eskaini zaio *Emakumeen*

eskubideak defendatzeko bizitza-historiak berreskuratzen ikerketaren prozesu metodologikoan.

Giza Eskubideak Mendebaldeko Saharan. Biktimen egiazko egoera babesteko tresnak sortzeko eta giza eskubideen alde lan egiten duten Saharako instituzioen eta erakundeen gaitasunak indartzen laguntzeko. Taldekideak: Carlos Martín Beristain, Tatiana Montenegro, Gloria Guzmán, Irantzu Mendia. Laguntzaileak: Francisco Etxebarria, Lourdes Herrasti (Aranzadi Zientzia Elkarte) eta Arantza Chacón.

Ildo hori Euskal Fondoak babesten du *Ikerketa eta gaitasunen garapena Mendebaldeko Saharan dauden Giza Eskubideen urraketen aurrean eragiteko* izeneko proiektuarekin. Gainera, GLEAk honako hau finantzatu du: "Mendebaldeko Saharako gatazka konpontzeko agenda, egian, justizian, erreparazioetan eta ez errepikatzeko bermean oinarrituta".

6

Garapen eta Nazioarteko Lankidetzaren Politikak. Aldaketen analisia hala garapenari buruzko eztabaidetan nola lankidetzako politiketan. Taldekideak: Jorge Gutiérrez (ikertzaile nagusia), Yesica Álvarez, Iratxe Amiano, Andrés Fernando Herrera, Irati Labaien, Eduardo Malagón, Ignacio Martínez, M^a José Martínez, Michel Sabalza, Koldo Unceta, Unai Villena, Idoye Zabala.

2030eko Agendaren analisi kritikoaren eta Garapen Iraunkorrek Helburuen inguruan egindako lanaz gain, eta Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko ikerketaz gain ere, taldeak *Informazio sistema harmonizatu baten diseinua euskal erakundeentzat, garapenerako lankidetzaren alorrean* proiektua bukatu du 2017an. Proiektu horretarako GLEAren babesa izan du, bai eta Foru Aldundiena, Euskadiko hiriburuetako udalena eta Euskal Fondoarena ere.

Lankidetzaren kritikoa eta gizarte-mugimenduak. Hiru Ikerketa-ardatz ditu: solidaritate internazionalista; jakintzen

aniztasuna eta prestakuntza politiko askatzailea; eta elikadura-subiranotasuna eta agroekologia. Taldekideak eta laguntzaileak: Jokin Alberdi, Davide Angelilli, Eflen Areskurrinaga, Beatriz Casado, Yenifer García, Itziar Hernández, Yolanda Jubeto, Berta Malvárez, Zesar Martínez, Silvia Piris, Janaina Stronzake, Unai Vázquez.

Elikadura-burujabetzaren eta agroekologiaren ildotik, abian da *Baserritik Mundura: Formación y articulación del movimiento campesino vasco* proiektua, GLEAk finantzatuta, EHNE Bizkaiarekin lankidetzan. Unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen artean loturak ezartzeko asmoarekin, taldeak zenbait jardueratan lagundu du, hala ICAS unibertsitate sarearekin nola Brasilgo MSTrekin batera, besteak beste.

Hezkuntza. Hezkuntza askatzailea izan dadin pentsamendurako eta marko teoriko eta praktikoak sortzeko gunea. Taldekideak: Gema Celorio, Juanjo Celorio, Amaia Del Río, Joseba Sainz de Murieta, Unai Villena.


VSF-Justicia Alimentaria Globalekin lankidetzan, *Elikadurarako eta Garapen Iraunkorrek eskubiderako espazioak zabalduz genero ikuspuntuarekin, hezkuntza formaleko esparru guztietan* proiektua (4 urteko hitzarmena, 2015-2018, AECIDek finantzatuta) garatzen ari dira. Era berean, 2017an martxan jarraitzen du *Hariak Ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Gizarte eta hezkuntza eragileekin topaketa* egitasmoak, GLEAk finantzatuta.

Doktoretza-tesiak. Hegoaren Garapenari buruzko Ikasketen doktorego programan (UPV/EHU), 69 tesi daude matrikulatuta; horietatik 14, 2017ko deialdian matrikulatu dira. 2017. Urtean sei doktoretza-tesi irakurri dira.

Gaur egun, Dokumentazio Zentroak 20.500 erregistrotik gora ditu liburutegi digitalean. Hegoak 1988. urtetik metatutako ondare oparoa da, eta bertan bilduta daude garapenari eta lankidetzari buruz orain arte egin diren eztabaida nagusien erreferentziak. Ondare hori edukitzeak eta erabiltzeak garapenerako lankidetzaren arloko lana eta politikak aurrera eramateko aukera eman die Institutuko irakasle eta ikertzaileei nahiz gizarte eragileei eta publikoari, oro har.

Dokumentazio Zentroaren zerbitzuek azken hamarkadan izandako bilakaerak erakusten duenez, Zentroan hainbat aldaketa izan dira eta ahalegina egin da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara egokitzeko. 2017. urtean, Liburutegi Digitaleko online irakurgaiak 890.126 PDF deskarga izan dituzte.


Deskargak (pdf): Liburutegi Digitala vs Hegoaren beste zerbitzu batzuk



Liburutegi digitala: 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036); 2013 (711.398); 2014 (781.354) **+%9,8**; 2015 (911.981) **+%16,7**; 2016 (1.262.353) **+%38,4**; 2017 (890.126) **-%30** • **Bantaba:** 2011 (294.967); 2012 (391.828); 2013 (331.578); 2014 (277.828) **-%19,3**; 2015 (251.163) **-%10**; 2016 (450.920) **+%79,5**; 2017 (402.863) **-%12** • **TGG ataria:** 2011 (267.083); 2012 (270.538); 2013 (474.564); 2014 (417.938) **-%13,5**; 2015 (463.936) **+%11**; 2016 (560.268) **+%20,7**; 2017 (533.571) **-%5** • **Hegoaren argitalpenen webgunea:** 2011 urria-abendua (16.356); 2012 (67.043); 2013 (144.758); 2014 (196.426) **+%26,4**; 2015 (274.036) **+%39,5**; 2016 (247.755) **-%10**; 2017 (120.484) **-%52** • **Cdoci buletinak:** 2011 (13.709); 2012 (12.073); 2013 (5.589); 2014 (11.417) **+%104**; 2015 (14.658) **+%28,3**; 2016 (22.262) **+%51,1**; 2017 (16.381) **-%27** • **Multimedia Cdoci:** 2012 (81); 2013 (2.250); 2014 (2.928) **+%23,2**; 2015 (8.584) **+%193,1**; 2016 (8.081) **-%6**; 2017 (68.146) **+%843**

Hegoaren Liburutegi Digitala garapenean eta nazioarteko lankidetzan espezializaturiko gaztelaniazko datu base nagusietakoa da. Datuen eskaria Amerikan izan da bereziki handia (%53), aurreko urteetan baino are nabarmenago. Bestalde, kontsulten %44 Europan egin dira. Euskal Autonomia Erki-degoari dagokionez, zehazki, kontsulten %17 bildu ditu, eta Espainiako estatuko gainerako lurraldeek %23.

2017an Liburutegi Digitalak izandako eskaria, geografia eremuka



2017an hiru foru-aldundiei aholkularitza-zerbitzuak ematen jarraitu dugu, jarraian laburtzen den bezala.

Arabako Foru Aldundiaren kasuan, laguntza eman zitzaion lankidetzaren politika diseinatzeko esparrua identifikatzeko prozesuan. 2017an Foru Aldundiaren Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zuzendaritzak egindako kontsulta askori erantzun diegu.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu genuen lan-ildo hauetarako:

- Aholkularitza proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren araudia idazteko; proiektuok honako hauekin daude lotuta: garapenerako lankidetzarekin, gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin, eta ekintza humanitarioarekin eta larrialdiko laguntzekin. Jardueren artean, baremazio-irizpideak interpretatzeko gidaliburua prestatu genuen.
- Laguntzen deialdian aurkeztutako proiektuen ebaluazioa (114 proiektu) eta onartuen jarraipena (70 proiektu).
- Proiektuen deialdiko parte-hartzaileen prestakuntza.
- Zuzeneko lankidetzaren proiektu bat identifikatzea.
- Aurreko deialdietan onartutako proiektuen jarraipen-bisitak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, jarduera hauek egin ziren:

- Aholkularitza proiektuetarako diru-laguntzen deialdia idazteko; proiektuok honako hauekin daude lotuta: garapenerako lankidetzarekin, gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin, eta ekintza humanitarioarekin eta larrialdiko laguntzekin.

- Laguntzen deialdian aurkeztutako proiektuen ebaluazioa (93) eta onartuen jarraipena (51).

- Proiektuen deialdiko parte-hartzaileen prestakuntza.

- Garapenari eta lankidetzari buruzko euskarazko dibulgazio-argitalpenak prestatzea eta argitaratzea: *Hegoak Zabalduz* aldizkaria.

Gainera, Eibarko, Irungo eta Ordiziako udalei laguntza teknikoa ematen jarraitu dugu, bai euren lankidetzaren deialdietan aurkeztutako proiektuak barematzeko (30) bai onartutakoen jarraipena egiteko (20).

Gure autonomia-erkidegotik kanpo, Kantabriako Gobernuaren Gazteria eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritu gara lan hauetan:

- Aholkularitza eta laguntza Kantabriako Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea modu parte-hartzailean prestatzeko prozesuan.
- Gizartea eraldatzeko hiru hezkuntza-proiektuen ebaluazioa.

Hegoa Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Karlos PÉREZ DE ARMIÑO **Idazkaria:** Irati LABAIEN
Kontseilukideak: Eflen ARESKURRINAGA, Gema CELORIO, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Andrés Fernando HERRERA, Eduardo MALAGÓN, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Almudena SAINZ, Iker ZIRIÓN

Hegoa Elkartearen Zuzendaritza Batzordea

(Herri Onurako Elkartea izendatua. EHAA, 165. zkia., 2003ko abuztuaren 26a)

Lehendakaria: Luis GURIDI **Lehendakariordea:** Pilar JURADO
Idazkaria: Eduardo BIDAURRATZAGA **Diruzaina:** María José MARTÍNEZ **Kideak:** Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Idoie ZABALA

Hegoa Institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileak

Xabier AIERDI, Jokin ALBERDI, Iratxe AMIANO, Eflen ARESKURRINAGA, Marta BARANDIARÁN, Xabier BARRUTIA, Mirene BEGIRISTAIN, Roberto BERMEJO, Eduardo BIDAURRATZAGA, Gorka BUENO, M^a Luz de la CAL, Juanjo CELORIO, Marian Díez, Alfonso DUBOIS, Iker ETXANO, Mikel de la FUENTE, Xabi GAINZA, Luis GURIDI, Jorge GUTIÉRREZ, Iñaki HERAS, Juan HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, David HOYOS, Pedro IBARRA, Yolanda JUBETO, Irati LABAIEN, Mertxe LARRAÑAGA, Imanol MADARIAGA, Eduardo MALAGÓN, M^a José MARTÍNEZ, Zesar MARTÍNEZ, Elena MARTÍNEZ TOLA, Irantzu MENDIA, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Victor POZAS, Uri RUIZ BIKANDI, Joseba Andoni SAINZ DE MURIETA, Bob SUTCLIFFE, Juan TELLERÍA, Luis Miguel UHARTE, Koldo UNCETA, Unai VILLALBA, Idoie ZABALA, Patxi ZABALO, Iker ZIRION, Imanol ZUBERO, Luis M^a ZUPIRIA

Talde teknikoak

Koordinatzaile orokorra: Maite FERNÁNDEZ-VILLA **Prestakuntza:** Gema CELORIO, Marisa LAMAS **Dokumentazioa, argitalpenak eta komunikazioa:** Iñaki GANDARIASBEITIA **Proiektuen kudeaketa eta aholkularitza zerbitzuak:** Gema CELORIO, Amaia DEL RÍO, Yenifer

GARCÍA, Gloria GUZMÁN, Tatiana MONTENEGRO, Carlos PUIG, Michel SABALZA **Administrazioa eta finantzak:** Joana del OLMO, Almudena SAINZ **Generoari buruzko barne taldea:** Gema CELORIO, Amaia DEL RÍO, Maite FERNÁNDEZ-VILLA **Ikertzaile kontratatutak:** Itziar MUJICA, Unai VILLENA **Prestakuntza arloko ikertzaileak:** Yesica ÁLVAREZ, Leire AGIRREAZKUENAGA, M^a del Mar GONZÁLEZ, Alba LINARES, Iker de LUZ, Julia MARTÍ


Sareak eta lankidetzak

AIPAZ: Asociación Española de Investigación para la Paz – ALDEE: Euskadiko artxibozain, dokumentalista eta liburuzainen elkartea – Alianza Latinoamericana de Estudios Críticos sobre Desarrollo – ARDA: Agrupación de Investigación y Docencia de África – Asociación de Economía Crítica – EADI: European Association of Development Research and Training Institutes – Enlazando Alternativas: Red birregional Europa-América Latina y el Caribe – Espainiako GGKEen Koordinakundea (lankidea) – Euskadiko GGKEen Koordinakundea (lankidea) – Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Eragileen Aliantza – Fiare Banca Ética – GEA: Grupo de Estudios Africanos – Harresiak Apurtuz Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKEen koordinakundea – IAFFE: International Association for Feminist Economist – ICAS: Initiatives in Critical Agrarian Studies – Mosaiko – ODA-E: Red para la Creación del Observatorio del Derecho a la Alimentación de España – Programa Amanda – REAS: Economía Alternatibo eta Solidarioaren Sarea – REDIAL: Red Europea de Información y Documentación sobre América Latina – REEDES: Red Española de Estudios del Desarrollo – SEDIC: Sociedad Española de Documentación e Información Científica – SEM: Sociedad de Economía Mundial – SID: Sociedad Internacional para el Desarrollo – Tesela – WEA: World Economics Association – WIDE: Women in Development Europe


Lankideak

Eskerrak eman nahi dizkiegu urtean zehar egindako jardueretan era batera edo bestera Hegoa Institutuarekin lankidetzan aritu diren guztiei.

HEGOA ELKARTEAREN 2017ko Kontuak. Eurotan. 2017/12/31



- Eusko Jaurlaritza
- Fondo propioak (kuotak, zerbitzuak...)
- Euskal Fundazioak
- Espainiako Gobernua
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Beste diru-laguntza pribatu batzuk (bbk Fundazioa)
- UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako
- Beste ekarpen batzuk
- Finantza-interesak



- Langile guztien gastuak (12,28 lanaldi oso)
- Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)
- Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko
- Transferentziak partzuergo-erakundeei
- Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)

2017ko ekitaldiari egotzitako sarrerak	1.228.390,43	%100,00
Eusko Jaurlaritza	738.285,66	%60,10
Fondo propioak (kuotak, zerbitzuak...)	269.174,28	%21,91
Euskal Fundazioak	81.185,33	%6,61
Espainiako Gobernua	56.019,32	%4,56
Gipuzkoako Foru Aldundia	39.203,87	%3,19
Beste diru-laguntza pribatu batzuk (bbk Fundazioa)	23.390,35	%1,90
UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako	20.000,00	%1,63
Beste ekarpen batzuk	781,02	%0,06
Finantza-interesak	350,60	%0,03

2017ko ekitaldiari egotzitako gastuak	1.179.191,08	%100,00
Langile guztien gastuak (12,28 lanaldi oso)	550.414,25	%46,68
Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)	281.698,46	%23,89
Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko	269.399,38	%22,85
Transferentziak partzuergo-erakundeei	55.854,97	%4,74
Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)	21.824,02	%1,85

2017ko ekitaldiko emaitza (irabazia): 49.199,35